

# DESKRIBAPENA

Kontuan izanda Diabetesa gaixotasun kroniko eta hedatu bat dela, laguntza handia izango litzateke pankreas artifizial bat sortzea, gaixotasun hori duen jendearen bizitza errazteko eta intsulina-glukagoi ziztada kopurua murrizteko.

Hori dela eta, gure ideia pankreas artifizial bat eratzea da, baina guk soilik produktua patentatuko genuke. Hau da, gure proiektua ideia garatzean datza, eta ideia edo patente hori saltzeko bai gobernuekin bai enpresa farmazeutikoekin harremanetan jartzea.